


**bueltaxka**



**OSA+MUJIKA**



Zenbatetan izan duzu ez duzun hori behar izatearen sentsazioa? Zenbatetan ibili zara gelditu gabe bueltaka eta bueltaka falta zaizun horren bila? Gizakion betiko asebate ezina, gure bizia bete-betea soilik BALDIN ETA... izango denaren uste hori.

Gaur egun bilatze hori etengabea eta nekaezina da, merezi duen tokira iritsi izanaren sentsazioa ez dugu inoiz lortzen, eta bueltaka jarraitzen dugu. Uste dugu gauza zehatz bat lortzarekin gure bizitza betirako konponduko dela, baina jakin badakigu ez dela horrela gertatzen. Bizitza ez delako inoiz guztiz "konponduko"; beti bidean gaudelako.


**BUELTAXKA** ikuslea gelditzera behartuko du, bueltak emateari utzi eta bilaketa etetea behartuz. *Hor kanpoan* besterik ez dagoela gogoraraziko digu, dena *hau* dela, baina baita *honek* merezi duela ere.

Lanak bi lagunen -Jaiotz Osa eta Rafke Van Houplines- istorioa kontatuko du, helburuak lortzeko ezinegonak ezertan laguntzen ez digula konturatuko diren bi lagunen istorioa. Elkar egotearen plazera topatzea lortuko dute, elkar aurrera eginez eta asebetetze ezin hori albo batera utzita porrota sufrituko ez dutela ikasiko dutelako.

**BUELTAXKA** bidea txalotzen du, orainera gonbidatzen gaitu.

**BUELTAXKA** laguntasunaren goraiipamena da.

Dantza Hirian jaialdiak sustatzen duen *Aterpean* laguntzari esker sortu den 15 minutuko lan hau 2022ko irailean Biarritzeko Maitaldian eta Hondarribiako Dantza Hirian jaialdian estreinatu zen.



**OSA+MUJIKA**, Jaiotz Osa eta Xabier Mujikaren arteko topaketa artistikoa da. Bi mundu sortzaileraren arteko elkartzera da: alde batetik dantza, eta jantzigintza/eszenografia bestetik. Jaiotz dantzari eta koreografoa da, Xabierrek berriz, jantziak eta espazio eszenikoak diseinatzeko ditu. Bien artean sortzen duten taldearen helburua bisualki indartsuak diren istorioak kontatzea da, buruan dituzten irudiak sortzea, hauei forma eta zentzua eman eta mugimenduaren bidez nahiz formatu audiobisualetan garatu. **OSA+MUJIKA** dantza eta ikusentzunezko arteetan dituzten interesak asetzeko sortu zen.

2017an sortua, ibilbidea ez-ohiko espazioetarako sortutako 13 minutuko **SUDDENLY** piezarekin hasi zuten. Obra hau *Red Acieloabierto 2017* sarean hautatua izan zen. Lan hori garatuz, **SUDDENLY III** antzokirako obra aurkeztu zuten, eta 2019an hainbat emanaldi egin zituzten *Danza a Escena 2019*an hautatuak izan ostean. Urte berean Portugaleko KALE Companhia de Dança-arentzat **PRODUTO** sortu zuten lau dantzarirentzat. Koreografia hontatik abiatuta eta Tabakalerako 2de0 ikusentzuzko laborategiaren laguntzetan hautatuak izan ondoren **OSA+MUJIKA**ren lehen bideodantza jaio zen, **PRODUTO (the film)**.

2019ko azaroan **KENOPHOBIA** estreinatu zuten, hiru dantzarik osaturiko 55 minutuko lana. Pieza hau *Danza a Escena 2021* zirkuituan eta La Comisión de Ballet, Danza y Artes del Movimiento de La Red-ek landutako *Dantza Ikuskizun Gomendatuen 13. koadernoan* hautatua izan zen, horri esker 20 emanaldi inguru burutu zituzten eta Madrid en Danza eta Dansa Valencia bezelako jaialdiak bisitatu zituzten.

2020ko uztailean **EXPECTATIONS WILL NOT KILL YOU**, ez-ohiko espazioetarako 13 minututako duoa estreinatu zuten. Lana *Red Acieloabierto 2020*ean biran izan zen eta *Dantza Ikuskizun Gomendatuen 14. koadernoan* gomendatua izan zen. Urte berean **LOSER**, 50 minutuko bakarkako lana sortu zuten, Bilboko *Azkuna Zentroak* eta *Dansateliers Rotterdamek* bultzaturiko Amphytrion laguntzari esker.

2022ko maiatzean Donostiako Gazteszena aretoan **ABUNDANCE** estreinatu zuten, bost interpretekin dantzaturiko 52 minutuko lana, *Danza a Escena 2023* katalogoan hautatua.



## TALDEA

Zuzendaritza	OSA+MUJIKA
Koreografia	Jaiotz OSA
Interpreteak	Jaiotz OSA Rafke VAN HOULINES
Jantziak	Xabier MUJIKA
Musika	GARTXOT
Bideo/Argazkiak	ETANOWSKI


## BIDEOAK

### Pieza osoa

[www.vimeo.com/769028050/515e7e7d52](http://www.vimeo.com/769028050/515e7e7d52)

### Teaserra

[www.vimeo.com/769033265/b9bcb5d948](http://www.vimeo.com/769033265/b9bcb5d948)

 **dantzahirian**

 dantza  
gunea




 **etxe  
pare**  
EUSKALINSTITUTUA  
INSTITUTU OVASCO  
BASQUEINSTITUTE

 Herri Ametsa  
kastola





OSA+MUJIKA



[www.osamujika.com](http://www.osamujika.com)  
Facebook: Osa + Mujika  
Instagram: osa\_mujika